

## ALKATE JAUNARI

Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Morlans eta Loiola arteko zatian topoaren trenbidea lurperatzeari buruzko MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Udalbatzan eztabaidatzeko.

### JUSTIFIKAZIOA

*Urtarrilean, Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak behin betiko onartu zuen Amarako trenbide-saihesbideari buruzko informazio-azterlana.*

*Azterlan honen helburua da Lugaritz eta Morlans artean 600 metro inguruko tunel bat egitea, topoaren egungo trazaduratik abiatuko dena, eta handik, salgaiak Irunerako bidea jarraituko lukete lur gainean.*

*Azterlanak kezka handia sortu du Añorga, Amara eta Loiolako bizilagunen artean, proiektuak auzo horien zati handi bati eragiten baitio. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak topoaren trenbide-korridorea (Lasarte-Hendaia linea) aprobetxatu nahi du Añorga, Amara eta Loiola zeharkatuko dituen salgaien saihesbide bat egiteko. Salgaien beste saihesbide batek nabarmen areatuko luke inpaktu akustikoaren eta bibrazio-inpaktuaren inguruan dagoen arazoa.*

Salgaiak garraiatzeko trenak luzeagoak eta astunagoak dira, eta, gainera, salgai arriskutsuak eta sukoiak ere garraia ditzakete, eta horrek zarata handiagoa eragingo du auzo horietan gauetz, atsedeen-orduetan. Salgaien tren horiek gauetz ibiltzeko arazoia da eguneko ordutegia pertsonak garraiatzeko soilik erabiltzen dela, eta pertsonak garraioa bateraezina dela salgaien garraioarekin.

Añorgako, Amarako eta Loiolako bizilagunek hamarkada bat baino gehiago daramate Udal honi eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen Topoaren trenbidea lurperatzeko Morlans eta Loiola artean, inguruko etxebizitzetan zarata eta bibrazioak saihesteko.

Trenbideak lurperatzeko azterlan ugari egin dira, hirigintza-irtenbide desberdinekin, baina ez dira inoiz gauzatu.

Orain trenen trafikoa areagotu behar bada, eta gainera gauez, uste dugu Topoaren trenbidea lurperatu egin behar dela Amara parean; hau da, Morlans eta Loiola artean.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

#### MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Topoko trenbidea Amaran — Morlans eta Loiola artean— lurperatzeko proiektua egiteko.
2. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio proiektu alternatibo bat egiteko, salgaiak Añorga auzotik igaro ez daitezen.
3. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio proiektu berri bat egin dezala Donostiako udal-mugartean sartu aurretik topoaren trenbide-sistema Astigarragako salgaien trenbide-saihesbide berriarekin lotzeko eta, horrela, gure hiritik merkantzia arriskutsu, sukoi eta bestelakorik ez igarotzeko.

Donostian, 2022ko maiatzaren 5ean

Borja Corominas Fisas,  
Udal Talde Popularreko bozeramailea